# EGUSKITZA ta MEABE'tar JUAN B.

▼

Lemona'n jaio zan, eta Le nona'n il, bere bizitzarik geiena Lekeitio'n igaro bazuan re.

1875'gn. urtean jaio; 1939'g ean. il, Dagonilla'ren 12'an.

Apaiza zala esan bearrik ez dago—aren idaz-lanai galde—. Eta ez nolanaiko Ap za, izan ere. Jaungoikozkoa benetan, eta benetan jakints gañera. Buruz ondotxo jantzia, berez eta ikastez. Adim trinko ta sendoa. Sophistikeri gabeko skolastikoa. Old pen sakon eta argia. Itz ondo ebakia. Jardunean ta lagu tean, itz-murritza. Aurpegi irritsua orratik Lanean, la le gotorra, aspertzegabea. Akademiz Licentiatua. Ga z'ko Apaizgaitegian iñoiz Erakusle izana. Lekeitio'ko tindegi sonatuan ogeitamar bat urtean erakusletzan zintz rduna.

EUSKALTZAINDIA'n, la e etengabea. Etzan izango Batzarrik, Eguzkitza jauna edukiro— azterketa-lanen bat aurkeztuko etzuanik. Be eurdun, beti argi.

Orduko Eguneroko ta Ald rietan irakurgai asko argitaldu zituan. Eta liburuz ere. Liburu ondo aipagarri utzi dizkigu: elizgaiz, bi: ARIM N ILLA ta LORETAKO ILLA; eta beste bat jakintza z: GIZARTE-AUZIA. Prosa oparoa, itz ondo neurtu oskera jatorra —bizkaieraz gutxitxo bezelakoa—; aundi puztu ta anpaturik gabea; dana adi-errez; itxuraz xalo ñan estilo ondotxo landua, beaztoparik gabekoa... kirr na gorulari trebearen eskuan antzo...

JAUNAK BERE ZERU E RREAN DEZALA. — M. L.